# TXIRIKORDA

belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa

Usurbilgo Udala

# TXIRIKORDATARRON ESKULIBURUA

**Liburuxka hau esku artean baldin baduzu, baliteke Txirikordan bizi nahi izatea. Saiatuko gara zure zalantzak argitzen, eta, batez ere, aurrera-pausoa ematera animatzen.**

**Si tienes este folleto entre manos, es probable que quieras vivir en Txirikorda. Intentaremos aclarar las dudas que puedas tener, y, sobre todo, animarte a dar un paso hacia adelante.**

## ZER DA TXIRIKORDA?

Txirikorda Usurbilgo Udalak bultzatu duen belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa da. Proiektu berritzailea da Euskal Herrian. Nagusiki, bi arazori egin nahi die aurre:

- Gure herrian gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak.

- Adinekoen bakardadea edo/eta beraien etxebizitzen irisgarritasun falta.

Txirikorda es una vivienda comunitaria intergeneracional impulsada por el Ayuntamiento de Usurbil.

Es un proyecto pionero en Euskal Herria. Tiene como objetivo dar solución a dos problemas, principalmente:

- Las dificultades que tienen los y las jóvenes para obtener una vivienda en nuestro pueblo.
- La soledad de las personas mayores y/o la falta de accesibilidad de sus viviendas.

Horren aurrean, hurrengoa proposatzen dugu: bi kolektibo horietako herritarrei alokairuan bizitzeko aukera emango dien eraikina, euren artean zein herritarrekin hartu-emanak izateko beste eredu bat bultzatuko duena. Txirikorda, gainera, Usurbilgo Zaintza Ekosistema berriaren parte izango da, bat egiten baitu, bete-betean, zaintza eredu berriaren oinarriekin.

Proponemos un edificio que brindará la oportunidad de vivir en alquiler a estos dos colectivos, que impulsará, a su vez, otro modelo de relacionarse entre ellos y ellas y con las demás usurbildarras. Txirikorda, además, formará parte del Ecosistema de Cuidados de Usurbil, ya que sus características concuerdan completamente con los cimientos del nuevo modelo de cuidados.

## NOLAKOA DA TXIRIKORDA?

Eraikina Ugartondon dago, eta 16 etxebizitza ditu (logela bakarreko 10 eta bi logelako 6).

Etxebizitza bakoitzak bere egongela, sukaldea, komuna, logela(k) eta terraza ditu.

Eraikinak, gainera, espazio komunak ditu: terraza teilatuan, portxea sarreran, garbigailuak, biltegiak, sukaldea, jantokia, egongela, liburutegia eta erabilera anitzeko gela.

El edificio está en Ugartondo, y consta de 16 viviendas (10 viviendas de una habitación y 6 viviendas de dos habitaciones).

Cada vivienda tiene su sala de estar, cocina, cuarto de baño, habitación/es y terraza.

El edificio, además, cuenta con espacios comunes: la terraza del tejado, el porche de la entrada, lavadoras, almacenes, cocina, comedor, sala de estar, biblioteca y una sala para diversas actividades.



Aurreproiekturako LZB-k garatutako irudia. Etxebizitza mota desberdinak izango ditu Txirikordak. Kasu honetan, lehenengo solairuko oina ageri da: logela bakarreko 4 etxebizitza eta bi logelako 2 etxebizitza. Eraikuntza fasean aldaketak egon daitezke.

## NORENTZAT?

Txirikorda está pensada para dos colectivos: jóvenes de entre 18-30 años que no tienen una vivienda en propiedad, y mayores de 65 años.

En ambos casos, deberán estar empadronados/as en Usurbil más de dos años, y se podrá solicitar una vivienda tanto individualmente como junto a las personas que se quiera convivir, siempre que todos/as cumplan las condiciones de acceso.

Bi kolektibori zuzenduta dago: etxebizitza baten jabe ez diren 18-30 urte arteko gazteak eta 65 urtetik gorako helduak.

Bi kasuetan, Usurbilen 2 urte baino gehiagoz egon beharko dute erroldatuta. Norbanako moduan edo bizi nahi duten pertsonekin batera eskatu ahal izango dira etxebizitzak, betiere guztiek baldintzak betetzen badituzte.

## NOLAKO ALOKAIRUA?

Gazteen kasuan, alokairua mugatuta egongo da denboran: 5 urte, gehienez. Helduen kasuan, aldiz, etxeak 5 urterako esleituko dira, baina luzagarria izan daiteke, etxea esleitu uneko egoerak bere horretan jarraitzen badu.

Errenta diru-sarrera guztien %15 izango da, 90 euro/hilean gutxienekoa ezarrita. Urtero, diru-sarreren berrikuspena egingo da, eta errenta horren arabera zehaztuko da.

Etxebizitza jabetzan duten helduen kasuan, kontratua sinatzen denetik urte bateko epean, etxebizitza hori hutsik ez dagoen konpromisoa hartuko dute.

En el caso de los y las jóvenes, el alquiler será para cinco años, como máximo. En el caso de las personas mayores, las casas se adjudicarán para 5 años que serán prorrogables, si se mantienen las condiciones del momento de la adjudicación.

La renta será el 15% de los ingresos, estableciendo como mínimo una cuota de 90 euros/mes. Se revisarán los ingresos anualmente, y se fijará la renta en base a estos. En el caso de las personas mayores que tengan una casa en propiedad, deberá comprometerse a ocupar su vivienda en un periodo de un año desde que se firme el contrato.

## ZEIN DA HARTU BEHARREKO KONPROMISOA?

Txirikordan komunitatean biziko gara, eta horrek, besteak beste, eskatzen du: bestearekiko errespetua, parte-hartzea eta komunitateak banaka zein taldean egiteko adostutako lanak egiteko konpromisoa. Bertako bizilagunentzat ezinbesteko baldintza izango da astean ordu batzuk eskaintzea komunitateari.

Txirikordak energia berriztagarrien zein bertako kontsumo arduratsuaren aldeko apustua egiten du.

Horrez gain, Txirikordak Usurbilgo bizitza publikoan eragile aktibo izan nahi du, beraz, barruko zein kanpoko jarduerak bultzatuko ditu.

En Txirikorda viviremos en comunidad, y eso requiere, entre otras cosas: el respeto mutuo, la participación y el compromiso de realizar las tareas, tanto individualmente como en grupo, previamente decididas por la comunidad. Para los y las habitantes de Txirikorda será una condición indispensable dedicar unas horas a la comunidad.

Además, Txirikorda pretende ser un agente activo en la vida pública de Usurbil, por lo que impulsará diferentes actividades tanto interna como externamente.





## NOLA KUDEATUKO DUGU?

Txirikorda espazio autogestionatua da: bakoitzak bere etxebizitza pribatua izango du, eta, aldi berean, espazio komunak konpartituko ditu gainerako bizilagunekin.

Komunitateak berak ezarriko ditu zeintzuk diren espazio partekatu horiek, garbiketa txandak, erabilpenak eta ordutegiak.

Norbanakoen eta kolektiboaren kontsumoak bereizi egingo dira. Erosketak, harpidetzak zein ondasun kolektiboen kontsumo adostuak bultzatuko dira.

Txirikorda será un espacio autogestionado: cada una tendrá su vivienda privada, y, a la vez, compartirá espacios con los y las demás vecinas.

Será la comunidad quien establezca cuáles serán esos espacios compartidos, los turnos de limpieza, usos y horarios. Se separarán los gastos individuales y los colectivos.

Se impulsarán las compras, suscripciones y consumo de bienes colectivos.



Aurreproiekturako LZB-k garatutako irudia.

## NOLA HAUTATUKO DIRA MAIZTERRAK?

Eskatzaile bakoitzak, norbanakoek zein bizikidetza unitateek, aipatutako baldintzak bete beharko ditu. Eskaera egiterakoan, logelen beharra adieraziko da (bat edo bi).

Eskatzaileek ezinbestean parte hartu beharko dute udalak eskainiko duen formakuntzan eta prestaketan.

Horren ostean, eskatzaileen artean maizterrak aukeratzeko bi bide zabalduko dira:
- Gazteen kasuan, zozketa egingo da.
- Helduen kasuan, gizarte zerbitzuek eskatzaileen beharrak neurtzeko baremazioa egingo dute.

Bi kolektiboetako eskatzaileen proportzioa eta adierazitako logela beharrak kontuan hartuko dira esleipena egiterakoan, kolektibo bakoitzarentzat 8 etxebizitza eskainiz. Kolektiboren baten ordezkaririk ez balego, 2-3 etxebizitza erreserban utziko lirateke.

Itxaron zerrenda osatuko da etorkizuneko bajak betetzeko.

Cada solicitante, cada unidad de convivencia, deberá cumplir las condiciones de acceso. Al solicitar una vivienda, se indicará cuántas habitaciones se requieren (una o dos). Los y las solicitantes deberán participar, necesariamente, en las sesiones de formación y preparación que organizará el ayuntamiento.

Después, empezará el proceso de selección de los y las solicitantes de vivienda:
- En el caso de los y las jóvenes, se realizará un sorteo.
- En el caso de las personas mayores, serán seleccionadas por el método de baremación que realizarán los servicios sociales municipales.

A la hora de adjudicar las viviendas, se tomarán en cuenta la proporción de solicitantes de ambos colectivos y las indicaciones del número de habitaciones requeridas, ofreciendo 8 viviendas a cada colectivo. En el caso de ausencia de peticiones por parte de uno de los dos colectivos, se reservarán 2 o 3 viviendas.

Se realizará una lista de espera para cubrir futuras bajas.

TXIRIKORDA

belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa